

ZER IKUSI, HURA EROSI

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. ATAZAK

- A. ataza: Mariquita Pérez
B. ataza: Zorionak zuri!
C. ataza: Ez galdu zeure burua!

3. ERANSKINAK

- I. Mariquita Pérez. ETB. DB 2262
- II. Pokemon eta Furby-ak zapatetan. Euskaldunon Egunkaria
- III. Olentzerori aholkuak. Euskadi Irratia. DB 1133
- IV. Jostailuek ez dute sexurik. Euskadi Irratia. DB 1134
- V. Ez da jolasa. Euskaldunon Egunkaria.
- VI. Zaudete geldu pixka batean I. Euskadi Irratia. DB 9
- VII. Zaudete geldu pixka batean III (ariketa)
- VIII. Zaudete geldu pixka batean II. Euskadi Irratia. DB 9
- IX. Corina, Corina filmeko zati bat
- X. Mariaren urtebetetzea. *Nikolas txiki eta bere lagunak* liburutik harturiko atala.
- XI. Gazte kontsumitzaileak. Euskadi Irratia. DB 379

BIDEO-PASARTEAK		
<u>A ataza</u>	<u>B ataza</u>	<u>C ataza</u>
1.- 02.24.54	3.- 02.36.52	7.- 02.43.24
2.- 02.26.43	4.- 02.38.59	8.- 02.45.13
	5.- 02.40.37	9.- 02.47.42
	6.- 02.41.19	

OHARRA: denbora horiek erreferentziazkoak dira.

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Gizarte osoa dago kontsumoaren eraginpean gaur egun. Badirudi jaiotzen garenetik hiltzen gareneraino kontsumitzea dela gure eginkizunik behinena. Haurrek eta gaztetxoek ere ezin horretatik ihes egin, eta, ondorioz, txiki-txikitatik ikasten dute kontsumitzen. Edozein aitzakia da ona: urtebetetzeak direla, Gabonak direla... dena da kontsumoa. Hortaz, kontsumoa izango da unitate honetako ardatza, oso maila sofistikatuetara iritsi baita.

Lehenik eta behin, opariez arituko gara, haur eta gaztetxoei egin ohi dizkiegun opariez. Kontsumitzen ere jakin egin behar omen da; beraz, zein opari egin ere ondo pentsatu beharra dago! Ondoren, urtebetetzez arituko gara, eta urtebetetze-jai bat antolatuko dugu, hauek ere gero eta sofistikuagoak dira eta. Azkenik, kontsumitzea alde batera utzi, eta gai honi buruzko gogoeta egiten ahaleginduko gara.

- A ATAZAn ikasleek ikaskideen seme-alabei opari egokiak egiteaz arituko gara. Opari-proposamen bat ere egingo dute. Atal honetan, beraz, ikasleek nahi izanez gero, joko hau errealitate bihur liteke, eta opariak benetan egin. Gelak berak erabakiko ditu arauak, hau da, zenbateko opariak egin, ...
- B ATAZAren helburu nagusia seme-alaben urtebetetzea ospatzeko jaiez hausnartzea izango da, gurasoen esperientziatik abiatuta.
- C ATAZAren helburua, aldiz, haurren hizkera arruntaz gogoeta egitea izango da eta, bide batez, zenbait esapide ikastea. Gaur egun, euskara aldapa gora dabil zenbaiten hizkera berezi edo argotaren arloan aurrera egiteko. Beraz, ikasleek (gurasoek) euren seme-alabek zein esapide informal erabiltzen dituzten eta zein hizkuntzatan aztertuko dute. Lantxo hau egiteko, komeni da egun batzuetan erne aritzea etxean. Horrela, bada, ikasgelan horiei buruz hitz egin eta euskarazko ordainak bilatzen saiatuko gara, nahiz eta alde zurretik jakin ez dela erraza izango. Horregatik antolatu dugu joko-moduan.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena.



A. ATAZA: MARIQUITA PÉREZ

- Ikaskideen txikitako jostailuen berri izan, eta gustuko jostailuez jardun
- Gidoi bati jarraiki, azken Gabonetan seme-alabek jasotako jostailuen berri eman
- Jostailu egokiak egiteko, hainbat aholku eman
- Jostailuak egiteko aholku batzuk jaso, horien berri elkarri eman eta iritziak alderatzeko
- Ikaskideen seme-alabei opari egokia egin

IRAK / ENTZ / MINTZ



B. ATAZA: ZORIONAK ZURI!

- Andoni Egañari buruz dakitena adierazi
- Istorioan dauden gezurrak atzeman, eta zuzendu
- Txikitan nola ospatzen zuten urtebetetzea kontatu
- Urtebetetze-gonbita idatzi
- Seme-alaben urtebetetze-festa nola antolatzen duten kontatu elkarri
- Urtebetetze-jaietako jokamoldeez hausnartu

ENTZ / IRAK / MINTZ / IDAZ



C. ATAZA: EZ GALDU ZEURE BURUA!

- Zenbait esapide testuinguru egokian txertatu
- Erantzun-multzo batetik egiazkoak identifikatu, kaleko inkesta bat entzutean
- Irrati bidez emandako iritzi baten ideia nagusia atera
- Hizlariak esandakoaren gainean, norberak bere iritzia eman

ENTZ / MINTZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Hurrei kontsumoak nola eragiten dien aztertzeko hainbat informazio jasotzea, ahoz nahiz idatziz; ondoren, horren gainean gogoeta ahoz egin ahal izateko

LEXIKOA

- **Jostailuak sailkatzeko kategoriak:** ahora eramatekoak, logika eta motrizitatea lantzekoak, eskulanak, hizkuntzak lantzekoak, joko sinbolikoak eta antzetzeko jolasak, sozializatzen laguntzeko jolasak (A)
- **Jostailuak:** trizikloa, eraikuntzak, arbelak, arrastan eramateko jostailuak, bolak zuloetan sartzeko jolasak, txintxirrinak, pala, mozorroak, ipuinak, txirrindua, uretako jostailuak, ipuin marrazkiduna, mahai-jokoak, plastilina, gomazko panpina, telefonoa, kuboak, zintzilikariak, egurrezko dominoa, bete eta husteko ontziak, margoak, pilota, zirkuituak egiteko jostailuak, kometak, puzzlea, oihalezko pilotak (A)
- **Urtebetetzeetako hiztegia:** urtemuga, urtebetetze-jaiak, opariak, zorionak, janaria, urteak bete, opila, urte askotarako, urtebetetzea, kandela, edariak, apaingarriak, gonbitak (B)
- **Euskarazko esapideak:** muturraren aurretik alde egin, to arrautza, ziztu bizian, kristorena, belar motzean ohitu(C)
- **Euskarazko atsotitzak:** astoa saldu eta mandoa erosi; diruarekin erosi ezin litekeena, ez diruagatik saldu; bost errealean erosi eta pezetan saldu; garesti erosi, merke saldu; ez saldu lagunari, ez erosi etsaiari; gauza garestitu zenean, kapa berria erosi, eta, merke zenean, saldu

MINTZAGAIAK

- Haurren gustuko jostailuak (A)
- Haurrentzako jostailu egokiak (A)
- Euskalkiak (bizkaiera) eta batua (A)
- Txikitako urtebetetze-ospakizunen nolakoa (B)
- Urtebetetze-gonbitak (B)
- Urtebetetze-jai bat nola antolatu (B)
- Kontsumoak haurrengan duen eragina (C)

ELKARRERAGINA

- Talde txikian hitz egindakoaren berri emateko, azalpenaren plangintza egin (A)(C)
- Hainbat iturritatik jasotako informazioa elkarri trukatu, gaiaren ikuspegi osoagoa izateko (A)
- Jasotako informazioaren sintesia egin (B)
- Testuingurutik atera esapide baten esanahia (C)

KOMUNIKAZIO AZPITREBETASUNAK

- Testu idatzi batean xehetasunak aurkitu (A)
- Ahozko testu batetik ideia nagusiak atera (A)
- Entzun berri denetik abiatuta, gaizki dagoena zuzendu (B)
- Testu idatzi batetik ideia nagusia atera (B)
- Ahozko testu batean xehetasunak aurkitu (C)
- Testuingurua erabili, esapide baten esanahia ateratzeko (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Aholkuak emateko baliabideak (A)
- Aditzaren aspektua (B)
- Datak eta zenbakiak (B)

2.- ATAZAK

A ATAZA: MARIQUITA PÉREZ

(255')

Helburu orokorra

- Jostailuak erosteko aholkuak jaso hedabideetatik, euren seme-alabei jostailu egokiak oparitzeko.

Helburu espezifikoak

- Gustuko jostailuez jardutea
- Gidoi bati jarraiki, azken Gabonetan seme-alabek jasotako jostailuen berri ematea
- Jostailu egokiak erregalatzeko, hainbat aholku ematea
- Jostailuak oparitzeko hainbat aholku jasotzea eta horien berri elkarri ematea, iritziak alderatzeko
- Ikaskideen seme-alabei opari egokia egitea

Zertan den

Hasteko, garai bateko eta gaur egungo opariez jardungo dugu, eta, ondoren, ikasleen seme-alabek jasotako oparien berri izango. Gero, opari horiek egokiak diren aztertu ahal izateko, ikasleak erosteko zein irizpidez baliatzen diren izango dugu hizketa-gai —aurreikuspen gisa—, adituen aholkuak entzun aurretik. Bukatzeko, jasotako informazioa gogoan, beste ikaskideren baten seme-alabari zein opari egin pentsatuko dute.

Prozedura:

1

Atazaurrea (5')

- Txikitik oso gustuko zituzten jostailuak gogoratuko dituzte. Horretarako, aldamenekoarekin elkartuko dira.

Ataza: gustuko zuten edo duten jostailuez jardutea (15')

- Banaka, Mariquita Pérezi buruzko lehen bideo-pasarteak ikusiko dute (1. eranskina). Hasi baino lehen, ea badakiten panpina ospetsu horren izena galdetuko diegu.
- Gero, bideo-pasarteak ikusi ahalean, bizpahiru datu interesgarri jasotzen ahaleginduko dira.
- Bizkaierak ulermen-arazorik sortarazi dien aztertu.
 - "Era guztietako nostalgikoak ei dagoz"
 - "Begiak zabaldu eta itxi egiten jakozan"
 - "Mariquita Pérez barriaren aurkezpena"
 - "Kolekzio barria bere udagoieneko arropen bildumeagaz"
 - "Sasoi haretakoa izan ez"
 - "Francoren lobak"
 - "Panpina honek Hola aldizkarian agertzen ziranen jolasorduak asetzen ebazan"

Feed-backa (5')

- Taldetxoetan jarriko dira, eta jaso dituzten datuak alderatuko dituzte.

Atazaostea (5')

- Helduen eta seme-alaben gustuko jostailuez mintzatzea.
BI GALDERA:
 - Gaur egun, jarraitzen al duzu txikitako jostailuren batekin lotura izaten? Ezagutzen al duzu jostailuren batekin jolasean ibiltzeko afizioa duen helduren bat (trena, Scalextrix-a, etab.)?

- Zuen seme-alaben jostailuak kontuan izanda, adierazi zein diren beti iraungo dutenak eta zein betiko jostailu gisa erro daitezkeenak. Pokemon, agian?


2

Atazaurrea (5')

- Jostailu batzuen argazkiak dituzte, alde batetik, eta "Pokemon eta Furby-ak zapatetan" izeneko erreportajeari dagozkion testuak (2. eranskina), bestetik. Argazkiak eta testuak lotu behar dituzte.

Ataza: mapa semantiko edo gidoi bati jarraiki, azken Gabonetan seme-alabek jasotako jostailuen berri eman (25')

- **Prestaketa:** azken Gabonetan seme-alabek jasotako oparien berri emango diote elkarri. Horretarako, liburuko mapa semantikoa osatuko dute. (10')



- **Ataza:** talde txikitan, mapa semantikoa edo gidodia eskuan, jostailuen berri emango diote elkarri. (15')
Entzuten ari diren bitartean, ikasleek neskek eta mutilek zein jostailu izan dituzten jasoko dute.

NESKAK	MUTILAK

Feed-backa: esanahia (5')

- Denen artean osatuko dute taula: neskatoek jasotako jostailuak eta mutikoek jasotakoak.

3

Atazaurrea (20')

- Aurreko puntuan osatutako taula aurrean dutela, talde txikian esango dute zein diren neskatoen jostailuen ezaugarriak eta zein mutikoenak. (10')

ezaugarriak	NESKAK	MUTILAK

- Denon artean liburuko galderaren gainean mintzatuko gara, eta hainbat ondorio ateratzen saiatuko:
- Alde handia al dago batetik bestera? Zertan? (10')

Ataza: jostailu egokiak egiteko, aholku batzuk eman (20')

- **Ataza:** hiruzpalauko taldeetan, ikasleek zera pentsatu behar dute: seme-alabei jostailu egokiak egiteko hainbat aholku (sexismoan ez erortzeko, gehiegizko kontsumoan, ...). Une horretan, lasai adieraz dezatela burura datorkien guztia, boligrafoak alde batera utzita. (10')
- **Plangintza:** taldean emandako aholkurik interesgarrienak zerrendatu behar dituzte. (5')
- **Azalpena:** talde bakoitzeko eledunak aholkuen berri emango die ikaskideei. Beste taldeetako kideen aholkuak jasoko dituzte, entzun ahalean. Oharra: errepikatzen direnak behin bakarrik idatzi. (5')

Feed-backa: forma

- Irakasleak paper batean jasoko ditu ikasleek aholkuak emateko erabiltzen dituzten esaldiak eta egiturak.

4

Ataza: jostailuak egiteko hainbat aholku jaso, horien berri elkarri eman eta iritziak alderatzeko (15')

- Ondoren, bi bideo-pasarte entzungo dituzte, irratian egindako bi elkarrizketa: "Olentzerori aholkuak" (2. bideo-pasarte / III. eranskina) eta "Jostailuek ez dute sexurik" (2. bideo-pasarte / IV. eranskina). Horietan hainbat aholku emango dituzte. Ikasgela bi taldetan banatuko dugu. Talde batek lehen elkarrizketa entzungo du eta besteak bigarrena. Aholkuak jaso behar dituzte. (10')
OHARRA: batzuk pasarte batekin ari diren bitartean, jarri besteak beste gela batean bigarren pasartearekin lanean.
- Bi multzotako lagunak elkartu —binaka jarri—, eta jasotako aholkuen berri emango diote elkarri. Taula osatuko dute: alde batean, bat datozen iritziak eta, bestean, bat ez datozenak. (5')

BAT DATOZENAK	BAT EZ DATOZENAK

Feed-backa (10')

- Arestiko bi bikote elkartuko dira —launaka—, eta jasotako aholkuak alderatu eta osatuko dituzte. (5')
- Zalantzaren bat izango balute, transkripzioa eman argitzeko. (5')

Gramatika eta diskurtsoa: lexikoa (25')

- Orain arte, jostailu mordoa aipatuko zuten ataza honetan. Dena den, normalean jostailu horien izenak gaztelaniaz dakizkigu. Ondoren irakurri beharko duten artikuluan jostailu dezente datoz, eta, seguru asko, horietako zenbait aipatuko zituzten. Hiztegi hori landuko dugu, nola esaten den ikus dezaten. Beraz, har dezatela ikaslearen liburuan duten jostailuen zerrenda, eta sailka ditzatela hitzok taulako kategoriatan.

JOSTAILUAK

Trizikloa, eraikuntzak, arbelak, arrastan eramateko jostailuak, bolak zuloetan sartzeko jolasak, txintxirrinak, pala, mozorroak, ipuinak, bizikleta, uretako jostailuak, ipuin marrazkidunak, mahai-jokoak, plastilina, gomazko panpina, telefonoa, kuboak, zintzilikariak, egurrezko dominoa, bete eta husteko ontziak, margoak, pilota, zirkuak egiteko jostailuak, kometak, puzzlea, oihalezko pilotak

Ahora eramatekoak	
Logika eta motrizitatea lantzekoak	
Eskulanetarakoak	
Joko sinbolikoak eta	

antzezteko jolasak	
Sozializatzen laguntzeko jolasak	
Hizkuntzak lantzekoak	

- Agian, bat baino gehiago geldituko zitzaizen sailkatu gabe, esanahia ez zekitelako. Eman EUSKARA-EUSKARA hiztegiaren bat (Sarasolaren Euskal Hiztegia, Lur Hiztegia...), begira ditzatela definizioak binaka, ulertu eta sailkatu.
- Hurrengo artikuluan azaltzen dira hitz horiek, eta hura irakurritakoan zuzenduko dute.

Atazaostea (15')

- Lehen egin duten jostailuen zerrenda gogoan, ikasleek —talde txikian bilduta— ea aholku horiek jarraitzen dituzten izango dute hizketa-gai. (10')
- Ondoren, taldean hitz egindakoaz galdetu ikasleren bati. (5')

Gramatika eta diskurtsoa: aholkuak emateko baliabideak (20')

- Ikasleek irratsaioetako elkarrizketen transkripzioetan aholkuak emateko esaldiak azpimarratuko dituzte.
- Jarri gardenki batean zuk ikasleei jaso dizkiezunak, eta alderatu biak. Seguru asko, ikasleek askoz ere egitura gutxiago eta sinpleagoak erabiliko zituzten. (5')
- Ondoren, binaka, eurek esandako esaldiak (gardenkikoak) berridatziko dituzte, ikusi berri dituzten baliabideak erabiliz. Bikotez bikote ibili sortzen zaizkien zalantzak argitzen. (15')

5

Atazaurrea (15')

- Ikasleek zerrenda bat osatu behar dute ikaskideen seme-alaben datuekin. Datu hauek jaso behar dituzte liburuan: izena, sexua eta adina.
- Horretarako, ikasgela hiru taldetan banatu, eta talde bakoitzeko kide bakoitzak besteen datuak jaso behar ditu. (10')
- Ondoren, taldeak berregin. Talde bakoitzean arestiko taldeetako kide batek egon behar du. Elkarri datuak trukatu behar dizkiote, beste taldeetako ikaskideen seme-alaben datuak izateko. (5')

Ataza: ikaskideen seme-alabei opari egokia egin (30')

- Ikaskideen seme-alabentzako opari egoki bat pentsatu behar dute. Binaka jarriko ditugu ikasleak. Horrela, bikote bakoitzak beste bikote bateko ikaskideen seme-alabei urtebetetze-egunean zein opari erregalatu pentsatuko dute.
- **Prestaketa:** pentsatutako oparien berri eman beharko dute. Prestatzeko puntu hauek izango dituzte kontuan: (10')
 - Oparia
 - Norentzat
 - Opariaren deskribapen laburra
 - Zergatik den egokia opari hori
- **Azalpena:** pentsatutako oparien berri emango dute. Txandaka egingo dute bikotekideek. (10')
- Entzuten ari diren bitartean, bere seme-alabek zein opari jasoko dituzten idatziko dute.

Atazaostea (20')

- "Ez da jolasa" testua irakurriko dute ikasleek (V. eranskina). Irakurri, eta euren seme-alabei egin dieten opariarekin alderatu behar dute. (10')
- Zera aztertuko dute: ea euren seme-alabei egindako oparia egokia den, testuko aholkuen arabera. (10')

B ATAZA: ZORIONAK ZURI!

(240')

Helburu orokorra

Urtebetetze-jaia ospatzeko moduez hausnartzea

Helburu espezifikoak

- Andoni Egañari buruz dakitena adierazi
- Istorioan dauden gezurrak atzematea
- Txikitan nola ospatzen zuten urtebetetzea kontatzea
- Urtebetetze-gonbita egokiak sortzea
- Seme-alaben urtebetetze-festa nola antolatzen duten kontatzea elkarri
- Urtebetetze-jaietako jokamoldeez hausnartzea

Zertan den

Lehendabizi, Andoni Egañak idatzitakoa entzun ondoren, txikitan nola ospatzen zuten urtebetetze-eguna gogoratuko dute ikasleek.

Gero, ikasleek urtebetetze-jairako gonbita idatziko dute lehenik, eta, ondoren, seme-alaben urtebetetze-eguneko jaia nola antolatzen duten kontatuko diote elkarri.

Prozedura

1

Atazaurrea (10')

- Ikasleek Andoni Egañari buruz zer dakiten adieraziko dute X bat jarriz ezaguna zaien liburuxkako datuaren alboan. Ikaslearen liburuan Andoniren argazkia dute. Horrela, bada, jarri ikasleak binaka, eta aukera dezatela gurutze batez Andoniz dakiten gutzia. (5')

	ZER DAKIZU?	
1.	Andoni Egaña du izena	
2.	Libra horoskopoz-zeinua du	
3.	Euskal filologian lizentziatua da	
4.	Bertsolaria	
5.	Lehenengo plaza 19 urterekin egin zuen	
6.	Hiru aldiz Euskal Herriko txapeldun nagusia	
7.	Zarauztarra	
8.	Idazlea	
9.	Euskal Telebistan "Balinda" saioa aurkeztu zuen orain dela urte batzuk	
10.	"Tximeletak sabelean" izeneko diskoa ere egin zuen	
11.	Bi seme-alabaren aita da	
12.	Gasteizko Udalean lan egindakoa da	
13.	Korrikalari porrokatua da	
14.	Anai-arreben artean bera da zaharrena	

- Galdetu bikote bati zer dakien. Ondoren, beste bikoteek osatuko dute Egañaren biografia. (5')

Ataza: istorioan dauden gezurrak atzeman (10')

- Ikasleek liburuko pasartea entzungo dute "Zaudete geldí" izeneko hirugarren bideo-pasartean (VI. eranskina) istorioaren lehen zatia. Istorioa bera liburuan dute idatzita, baina zeharo nahasia. Entzun, eta gezurrak harrapatu behar dituzte. Banaka. (10`)

Testua:

"Kepa oso mutiko azkarra zen, eta horregatik zen ezaguna lagunen artean. Urriaren 17an egiten zituen urteak eta jaia ospatzeko lagunak gonbidatzea eta Cola Cao hartzea gustatzen zitzaion. Bost urte egin zituenean, lagun guztiekin bildu zen etxean, urtebetetze-eguna ospatzeko. Hauxe izan zen bere bizitzako urtebetetzerik zoriontsuena, lagun batek Cine-Exin ekarri baitzuen film bat ikusteko, garai hartako oparirik preziatuena".

Gezurrak:

1. Kepa ez zen oso azkarra, nahiko kokoloa baizik.
2. Ez dakigu Cola Cao hartzea gustatzen zitzaion, baizik eta Cola Cao zela garai hartan ezagutzen zuten kakao bakarra.
3. Ez dakigu zenbat urte bete zituenean gertatu zen pasadizoa.
4. Ez zen bere urtebetetzerik zoriontsuena izan.
5. Cine-Exin berari egindako oparia izan zen.

Feed-backa (5')

- Ikasle bati eskatuko diogu esateko zein diren gezurrak.

Gramatika eta diskurtsoa: denborazko lokailuak, edo aditzaren aspektua; edo biak, aukeran (15')

- "Zaudete geldí" testuaren bigarren zatia emango diegu ikasleei, aditzik gabe (VII. eranskina: ariketa). Parentesi artean dituzte jarri beharreko aditzak. Ikasleek aditza jokatu eta behar bezala txertatu behar dituzte.
- Jarraian, entzun dezatela eta egiaztatu egindako lana (4. bideo-pasartea / VIII. eranskina: "Zaudete pixka batean -III-).

2

Ataza: gogoratu txikitan nolako ospakizuna egiten zuten (20')

- **Ataza:** jar itzazu ikasleak hirunaka. Orain, txikitako oroitzapenez jardungo dute ahoz, ezertxo ere idatzi gabe. Erreparatu ondorengo puntu hauei: (10`)
 - Eskolan
 - Etxean
 - Kanean
 - Ez zuten ospatzen
- **Plangintza:** txikitan zer egiten zuten gogoratu ondoren, oroitzapen haiek idazteko aukera emango diegu; eta zer edo zer idazten badute, eskematikoki egin dezatela, telegrama baten moduan. (5`)
- **Azalpena:** hirukoteko eledun batek guztien esperientzien berri emango die gainontzekoei. Beraz, ikaskideak erne egongo dira, oharrak hartzeko. (5`)

Feed-backa: forma (10')

Ikasleek narrazio-testuak ekoiztuko dituzte, eta, ondorioz, erabiltzen dituzten elementuei erreparatu beharko diegu: aditzari, aditz-aspektuari, testu-antolatzaileei, estilo-motari (zuzena edota zeharkakoa), eta abarri. Gogoan izan bereziki aditzari erreparatzeko agindu zaiela ikasleei.



- Beraz, aztertu denen artean jasotako akatsak: aspektua, paradigmatikak, denbora, ...

- Hurrengo egunean ere, laster batean, errepasatu akatsik handienak. Galdetu ikasgelako baten bati nola izango den dena delakoa (aditza...). Ondo esaten ez badu, besteren bati galdetu. Denon artean argitu zalantzak.

3

Atazaurrea (20')

- Ikasleek, seguru asko, ikusiko zuten noizbait urtebetetze-jairen batera gonbidatzeko txartelen bat. Binaka jarrita, horrelako txartel batean zein den ezinbesteko informazioa erabaki beharko dute. (5´)
- Ondoren, denen artean adostuko dute zein den ezinbesteko informazio hori. Arbelean idatziko dugu. (10´)
- Liburuan dute ikasleek seme-alabaren baten urtebetetzera lagunak gonbidatzeko txartel bat. Aldera dezatela euren aurreikuspena eta txartel hori. (5´)



Ataza: urtebetetze-gonbita sortzea (15')

- Binaka jarriko dira ikasleak. Gehien gustatu zaien gonbita oinarri, ikasleek nork bere gonbidapen-txartela sortuko dute. Egin duten aurreikuspenean informazioaren bat beharrezkoa dela joz gero eta, hala ere, ereduan azaltzen ez bada, arazorik gabe erantsiko dute. Bikoteak eredu bat izango du, baina bikotekideetako bakoitzak bere seme-alabaren baten informazioa jarriko du txartelean.
- Beraz, urtebetetze-gonbita idatziko dute, seme-alabek eskolako lagunei bana diezaieten.

Feed-backa: esanahia (15')

- Idatzitako ereduak hormetan itsatsiko ditugu, ikasle guztiek azter ditzaten. Egokiena eta politena zein den aukeratu behar dute. (5´)
- Aukeratzeko nork bere arrazoiak emango ditu. Gainera, zuzendu eta gero, gehien gustatu zaiena kopiatzeko aukera izango dute, seme-alabaren urtebetetze-egunean erabiltzeko. (10´)

Feed-backa: forma (15')

- Alde batetik, atazaurrean euskaraz idaztean izan dituzten zalantzez jardungo dugu. (5´)
- Bestetik, testu horietan dauden akatsak zuzendu eta txukundu egingo ditugu, gero ikasleek lasai erabil ditzaten. Horretarako, egokienak eta politenak iruditu zaizkien bizpahiru txartel hartuko ditugu, eta, gardenkien bidez, denon artean zuzenduko, irakaslea gidari. (10´)

Atazaostea (10')

- Liburuko galderak izango ditugu hizketa-gai:
 - Erabili al duzue inoiz horrelakorik (horrelako txartelik)?
 - Nor gonbidatzen duzue?
 - Nork erabakitzen du nor gonbidatu eta nor ez?

Gramatika eta diskurtsoa (20')

- Zuzenketa, seguru asko, datak eta helbideak zuzendu beharko genituen. Horregatik, bi alderdi horiek landuko ditugu. Beraz, ikasleek laukian idatziko dituzte euren familiakoen jaiotze-datak eta helbideak. (5´)

JAIOTZE-DATAK	HELBIDEAK

- Ondoren, hirunaka jarrita, eta feed-backa egin dugunean hitz egindakoa aintzat hartuta, elkarri zuzenduko diote. (10´)
- Sor litezkeen zalantzak denon artean argituko ditugu. (5´)
- Ikasle batzuek zenbakiak euskaraz adierazteko zailtasuna izan ohi dute, askotan gaztelaniaz esateko joera izaten dute-eta. Horrelakorik sumatuz gero, euren familiakoen adinak esanaraziko dizkiegu, eta gainontzeko ikaskideek zenbakiz jasoko dituzte paper batean.
- Adin guztiak arbelean idatzi (zenbakiz), eta, banan-banan, ikasleak arbelera atereaz, aldiko zenbaki bat idatziko dute (hizkiz).

4

Atazaurrea (10')

- Gaur egun nolako urtebetetze-ospakizunak egiten ditugun izango dugu hizketa-gai. Lehendabizi, talde txikitari, eta, gero, denon artean. Azkenik, zerrenda bat osatuko dugu arbelean (adb.: etxean, kalean, elkartean, Txiki-Park batean, dirua eman eta zinemara bidali, etab.).
- Jarri ikasleei "Corina, Corina" filmeari dagokion 5. bideo-pasartea (IX. eranskina). Esan idazteko urtebetetze-jai batean ohikoak diren elementuak eta bideoan azaltzen direnak.
- Ondoren, denon artean hitz egin.

Ataza: seme-alaben urtebetetze-festa nola antolatzen duten kontatzea elkarri (25')

- **Plangintza:** ikasleek seme-alaben urtebetetze-jai nola antolatzen duten pentsatu behar dute. Horretarako liburuan dituzten puntuei erreparatuko diete: (10´)
 - Prestaketa: gurasoak / seme-alabekin
 - Gonbitak: erosi / egin
 - Tokia: etxean / kanpoan
 - Lagunekin / familian
 - Apaingarriak, edariak, jatekoak
 - Opariak: seme-alabarentzat / gonbidatuentzat
 - Argazkiak / bideoak

- **Ataza:** hiruzpalau ikasle elkarrekin jarrita, elkarri kontatuko diote nola antolatzen duten jaiak. (15´)

Gramatika eta diskurtsoa: lexikoa (10')

- Urtebetetze baten deskribapena dute liburuan. Testu horretatik hainbat hitz atera ditugu. Ikasleek testua irakurri, eta hitzak leku egokian jarri behar dituzte. Ikasleek bi sinonimo pare ikusiko dituztenez, jar ditzatela bi horiek leku berean. Hona hemen hutsuneak betetako testua.

Urtziren **urtemuga / urtebetetzea** azaroaren 27an izaten da. Azkena orain bi aste izan zuen, eta 7 urte **bete** zituen. Ospatzeko **gonbitak** banatu zituzten famili artekoen eta lagunaren artean. Hortaz, eguna iritsi zenean, egundoko **urtebetetze-jaia** egin zuten. Ez zen ezertxo ere falta: amonak egindako **opila**, zazpi **kandela** eta guzti, mahai bete **janari** eta **edariak**; eta amak prestatutako gela, **apaingarriz** josita. Gainera, jaia biribiltzeko, Urtzik **opari** ugari jaso zituen. Hala ere, pozik handiena aitonak eman zion, bere ametsetako bizikleta oparitu eta **urte askotarako / zorionak** esan zionean.

5

Atazaurrea (5')

- "Mariaren urtebetetzea" bi aldiz irakurri ahal izango dute (X. eranskina). Lehen irakurraldian, azkar-azkar irakurri behar dute, testuaren gaiaz jabetzeko.

Ataza: nork bere iritzia eman irakurritako ipuinari buruz (10')

- Bigarren irakurraldia lasaiago egin behar dute. Orain, ipuina irakurri eta gero, irakurritakoaren sintesia egingo dute ahoz.
- Zer edo zer ulertu ez badute, azpimarratu egingo dute, irakasleari galdetzeko.
- Taldetxotan, taldekideen jokamoldeez hitz egingo dute, eta jasoko dute liburuxkako laukian. Eledun batek taldean hitz egindakoaren berri emango du.

Gure jokamoldea	Aldatu behar al dugu zerbait?

Atazaostea (15')

- Denon artean, gaiari helduko diogu. Horretarako, gurasoen kezka edo arazoei buruz jardungo dugu.

Honako prozedura hau jarrai liteke. Irakasleak eskatuko die ikasleei paper-mutur batean idazteko seme-alaben urtebetetze-jaia antolatzean izaten duten kezketako bat. Gero, poltsa batean bilduko dituzte paper-mutur guztiak, eta irakasleak horietako bat aterako du, eta elkarrizketa bideratuko du kezka edo arazo horren inguruan. Horrela, nahi adina paper atereaz dinamizatuko du saioa.

Hona hemen horietako kezka edo arazoetariko batzuk:

- Zein gonbidatu seme-alabaren urtebetetze-jaira? Zergatik?
- Neskak eta mutilak batera, ala ez? Zergatik?
- Oparirik bai ala ez? Zergatik?
- Haurraren gelako guztiak gonbidatu, ala ez? Zergatik?
- Non egin festa? Zergatik?
- Haurraren iritzia kontuan hartu, ala ez? Zergatik?
- Urtebetetze-jaia gurasoek bideratu, ala ez? Zergatik?
- Gonbidaturiko haurren gurasoekin izan beharreko harremana.

- Zein arazorekin egiten dugu topo?
- Horrelakoetan, zein da gurasoen kezkarik handiena?
- ...

Helburu orokorra

Hedabideetatik gazte eta haurren kontsumoaz informazioa jaso eta gaiaren inguruan gogoeta egitea.

Helburu espezifikoak

- Zenbait esapide testuinguru egokian txertatzea
- Erantzun multzo batetik egiazkoak identifikatzea, kaleko inkesta bat entzutean
- Irrati bidez emandako iritzi baten ideia nagusia ateratzea
- Hizlariak esandakoaren gainean, nork bere iritzia ematea

Zertan den

Gazte eta haurren kontsumismoaz gogoeta egingo dute ataza honetan. Abiapuntu hainbat iragarki izango dituzte, kontsumoaren ikur diren neurrian. Gazteen iritzia jakiteko asmoz, kale inkesta bat entzungo dute ondoren. Azkenik, adituen iritziak entzun eta hauen inguruan eztabaidatuko dute ikasleek.

Prozedura**1****Atazaurrea (10´)**

- Ikasleek liburuko esaldiak irakurriko dituzte ea ulertzen dituzten. Hipotesiak egin ditzatela. Zuk ez eman itzulpenik. (5´)

1. Heuregana itzak guztiak, muturraren aurretik alde egin baino lehen.
2. Arrautzarik ez! To arrautza!
3. Azkarra izan behar dik, hi harrapatzeko!
4. Ziztu bizian.
5. Goza ezak kristorena.

- Bide batez, adierazi, alde batetik, ea zuen seme-alabek hitanoa erabiltzen duten eta, beste alde batetik, noiz eta nola erabili behar den. Azaletik, ikasleek jakin-mina izaten dute-eta gai honen gainean. (5´)

Ataza: zenbait esapide testuinguru egokian txertatu (5´)

- Ikasleei, jarri 6. bideo-pasartea. Telebistako iragarki batzuk ikusiko dituzte, baina gaztelaniaz. Ikasleek, binaka, euskarazko esapide horiek dagokion iragarkiarekin lotu behar dituzte.

Feed-backa (20´)

- Galdetu bikote bakoitzari zein iragarkiarekin lotu dituzten. (5´)
- Ondoren, esan itzultzeko gaztelaniara esaldi horiek.(10´)

1. Hazte con todos, antes de que vuelen.
2. Aún te falta huevo? Toma huevo.
3. A ti te van a pillar.
4. Velocidad a tope.
5. Disfrute a lo bestia ...

- Eman itzulpenak, eta jarri berriro 6. bideo-pasartea. Iragarkiak ikusiko dituzte, eurek egindako loturak egiaztatzeko. (5´)

Gramatika eta diskurtsoa (10')

- Ikaslearen liburuan beste iragarki batzuetako testu-zatiak dituzte (7. bideo-pasartea). Oro har, esaldi horiek euskaraz ondo esateko arazoak izaten dituzte ikasleek. Binaka, euskaratu egin behar dituzte.
 - Tiene que ser muy buenos.
Primerakoak **izan** behar dute.
 - Ya sabes, no te comas tu OREO premiada.
Badakizu, ez jan **saritutako** zure OREOa.
 - Las estrellas más crujientes del universo.
Krisk-krask gehien egiten duen ortziko **izarrik handiena**.
 - Le importaría, de paso, bajar ese balón que está en la rama de arriba?
Bide batez, jaitsiko al **zeniguke** goiko adarrean dagoen baloia?

2

Atazaurrea (15')

- Gelako atearan kanpoko aldean orri bat jarri behar duzu, honako hiru galdera hauek dituen:
- Oharra: Ikaslearen liburuan dauden galderak arestian erabilitakoak dira. Ordezka itzazu beste galdera hauengatik:
 - Kontsumista al naiz ni? Zergatik?
 - Berez al gara kontsumistak?
 - Zertarako da dirua?
- Ikasleak banaka aterako dira gelatik, eta galdera bakoitzari nor bere erantzuna emango dio idatziz. Ez dute izenik jarri behar. Amaitzen dutenean jaso orria.

Ataza: erantzun-multzo batetik egiazkoak identifikatu, kaleko inkesta bat entzutean (5')

- Liburuan inkestako galderari emandako hainbat erantzun dituzte. Baina ez dira guztiak egiazkoak, asmatuak baizik. Ikasleek "kontsumistak ote gara" izeneko 8. bideo-pasartea ikusi, eta egiazkoak direnak markatuko dituzte gurutze baten bidez.

1.

- Bai, diru guztia gastatzen dute eta.
- Bai, beharrezkoa baino gehiago erosten dudalako.
- Bai, hedabideen eraginari ihes egitea oso zaila da eta.
- Bai, baina ez hainbeste; behar dudana erosten dut normalean.
- Bai, gurasoek txikitatik gauza guztiak erosten ohitu gaituzte eta.
- Bai, bizioetan gehiegi gastatzen dute eta.
- Ez, beharrezkoa bakarrik erosten dut.
- Bai, gizartea halaxe da eta.

2.

- Beti ez dut nahita kontsumitzen, askotan konturatu gabe.
- Ez, gizarteak eta hedabideek irakasten digute.
- Ni, ingurukoek bezalaxe, oso ondo konturatzen naiz gastatzen ari naizenean.
- Bai, ikusten duguna nahi izaten dugu eta.
- Kontsumistek inpultsiboki erosten dute.
- Ez, ohitura hutsa da.
- Kontsumistak barruak eskatzen diolako erosten du, ez hala nahi duelako.
- Nahi gabe kontsumitzen dugu, tentazio asko jartzen dizkigute eta.

3.

- Ziklo bat da: dirua aurreztu egin behar da, gero zerbait erosteko. Ondoren, berriz, aurreztu egin behar da.

- Bizitzeko.
- Beharrezkoa bakarrik erosi behar da, eta gelditzen dena aurreztu.
- Diruak honetarako behar luke: beharrezkoa erosteko, aurrezteko eta pobreei laguntzeko.
- Dirua beharrezkoa erosteko omen da, baina inork ez du hori egiten.
- Dirua gastatzeko da; bestela, ez du ezertarako balio.
- Behar duzuna erosteaz gain, gutiziatxoak erosteko.
- Dirua ahal dugun ondoen bizitzeko da.

Feed-backa (2')

- Binaka, markatutakoak alderatuko dituzte. Zalantzaren bat balego, beste bikoteei galdetuko diete.

Atazaostea (15')

- Gelako atean genuen orria gardenki bidez proiektatuko dugu. Ikasleek alderatu egin behar dituzte euren erantzunak eta gaztetxoena, eta, hironaka, ondorioen bat atera: alderik ba al dago helduok kontsumoari buruz dugun ikuspegiaren eta gaztetxoek dutenaren artean? (5´)
- Ondorioak denon artean aterako ditugu. (10´)

3

Ataza: irrati bidez emandako iritzi baten ideia nagusia atera (8')

- "Gazte kontsumitzaileak" izeneko 9. bideo-pasartea jarriko diegu ikasleei (XI. eranskina). Entzun ondoren, binaka, iritzi-emaile horren ikuspuntua, mezu nagusia, esaldi bakar batean laburtzen ahaleginduko dira.

Feed-backa (10')

- Bikote bakoitzak idatzitako esaldiak arbelean idatziko ditugu, eta denon artean bat aukeratuko dugu, egokien adierazten duena iritzi-emailearen mezu nagusia. Horretarako arrazoitu egingo dugu.

Gramatika eta diskurtsoa: testuingurutik atera esapide baten esanahia (50')

- Ikasleei "belar motza" esapideak zer esan nahi duen galdetuko diegu. (1´)
- Binaka, esapidearen esanahiari buruzko hipotesiak egingo dituzte; hau da, testuinguru horretan, esapide horren bidez hizlariak zer adierazi nahi izan duen pentsatu behar dute. (4´)
- Bikote bakoitzak bere hipotesia azalduko du, baita hipotesi hori nondik nora atera duten ere. Arbelean idatziko ditugu hipotesiak. (5´)
- Berriz entzungo dute. Gero, hipotesiak alderatu, eta arbelean idatzitakoetatik zein iruditu zaien egokiena bigarren entzunaldian esan behar dute. Ea ados jartzen diren. (5´)
- Norbaitek asmatu edo baten bat hurbildu baldin bada, esan zein, eta baliatu esanahia azaltzeko. Inork ez badu asmatu, zeuk azaldu. (5´)
- Ikaslearen liburuan dituzte salerosketekin lotutako beste hainbat esaera zahar. Jarri hironaka, ea esanahia ezagutzen duten. Euren hitzekin azaldu behar dute, ez eman gaztelaniazko ordainik. (10´)

1. Astoa saldu, eta mandoa erosi
2. Diruarekin erosi ezin litekeena, ez diruagatik saldu
3. Bost errealean erosi, eta pezetan saldu
4. Garesti erosi, merke saldu
5. Ez saldu lagunari, ez erosi etsaiari
6. Gauza garesti zenean, kapa berria erosi, eta, merke zenean, saldu

- Orain bai, gaztelaniazko ordaina ezagutzen badute, eman dezatela. (5´)
- Beharbada, guztiak ez dituzte ezagutuko. Ondoren, jar itzazu gaztelaniazko ordainak nahasita arbelean, eta ikasleek lotu ditzatela. Adierazi esaera batek baino gehiagok izan dezaketela ordain bera eta bakarren bat geldi litekeela ordainik gabe. (10´)

1-3: Salir de Guatemala y entrar en Guatepeor.

2: Ez dauka gaztelaniazko ordainik (*baserritarrek batzuetan saldu egiten zituzten kutxa zaharrak eta, gero berriz eskura ezin daitezkeenak*)

5: Ni vendas a tu amigo, ni compres a tu enemigo.

4-6: Quién compra caro, venderá barato

- Ondoren, denen artean zuzendu. (5´)
- Nahi izatera, esanahien bilaketa egin Gotzon Garateren *Atsotitzak* lanaren bidez. Liburua Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak argitaratua da. Bilaketa elektronikoa egin nahi izanez gero, jo honako helbide honetara: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>.

4

Atazaurrea (5´)

- Honezker oso ondo ulertua izango dute bertan dioena (ezinbestekoa bada, berriz entzunarazi pasartea). Hizlariak gauza dezente esaten ditu, batzuk gogor samarrak. Oraingoan, ikasleak hizlariak esaten dituenak jasoko ditu. Horrela, bada, bi gauza adieraziko ditu: alde batetik, zertan datorren bat hizlariarekin eta, beste alde batetik, berriz, zertan ez. Ikaslearen liburuan duten laukia erabiliko dute.

ADOS NAGO	EZ NAGO ADOS

Ataza: hizlariak esandakoaren gainean, nork bere iritzia eman (25´)

- **Ataza:** hiruzpalauko taldetan jarri ikasleak. Elkarrekin eztabaidatuko dute zertan datozen bat eta zertan ez hizlariarekin. Eztabaida dezatela elkarren artean. (15´)
- **Plangintza:** idatz dezatela zein izan den taldean eztabaida luze eta bizienak sortu dituen puntua; baita aldeko eta aurkako zein argudio erabili dituzten ere. (5´)

GAIA	ALDEKO ARGUDIOAK	KONTRAKO ARGUDIOAK

- **Azalpena:** talde bakoitzeko eledunak puntu horren berri emango du. (5´)

Atazaostea (10´)

- Bestalde, denon artean eztabaida daiteke puntu horien gainean. Baina ez luzatu gehiegi.

3. ERANSKINAK

I. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. ETB: 02.24.54)

Mariquita Pérez

Era guztietako nostalgia eta nostalgikoak ei dagoz, eta, horri jarraituz edo, denboran atzerabuelta bat egin, eta 1940. urtera itzuliko gara, minutu pare batez. 1940. urtea: Franco boterean. Egin, egin oroimenean errebobinatze txiki bat, eta, agian, gogoan izango dozu etxean ahizpa guztien artean banatu beharreko oihalezko panpina hori. Berrogeigarren hamarkada, 100 pezeta, dirutza; etxe bateko bataz besteko soldata, egunekoa, 10 pezetakoa. Mariquita Pérez panpinaren prezioa horixe zan: 100 pezetakoa. Langile baten 10 eguneko soldata behar zan begiak zabaldu eta itxi egiten jakozan kartoi, igeltso, talko eta pegamentuz egindako muineka hau erosteko. Bai? Gogoan dozu? Mariquitaren sasoikoa zara? Ni Nancyren garaikoa. Halakoak etorri dira ondoren, baina lehentxeago aipaturiko nostalgikoen gozamenerako edo, Mariquita Pérez berriaren aurkezpena gaur; kolekzio barria bere negu, uda, udazken eta udagoieneko benetazko arropen bildumeagaz.

Sasoi haretakoa izan ez, eta informazio bila Interneteko Mariquita Pérez webgunera joan, eta bertan azaltzen dan dokumentazioak hauxe dio: 40-50. hamarkadako neskatxen ametsa zala halako muinekak izatearena. Eva Perón, Francoren lobak, Grace Kelly, Gina Lollobrigida, sasoi haretako Marisol eta Hola aldizkarian agertzen ziranen jolasorduak asetzen ebazan egun 15.000 pezetan saltzen dan panpina honek.

II. ERANSKINA

Pokemon eta furby-ak zapatetan

Horiek dira Gabonetan etxe gehienetara iritsi diren edo iritsiko diren panpina eta bideo-jokoak

Telebistan iragartzen diren jostailu berriek erakartzen dituzte haur gehienak, eta horiek dira Olentzero zein Erregeei eskatzen dizkietenak. Hala ere, betiko panpina eta jostailuek ere txoko bat izango dute txikien zapatetan.

Jostailurik gogokoenak

Kontsola berriena.

Sega etxeak Dreamcast izeneko kontsola berri bat kaleratu du. Orain artekoak baino potentzia handiagokoa da, baina baita dezente garestiagoa ere (240 €, gutxi gorabehera). Saltzaileek uste zuten baino arrakasta txikiagoa lortu du Gabonetan. Gauza bera gertatu da umeentzako ordenagailuekin ere; ez, ordea, salneurriarengatik (denetarik dago), bestelako jostailuak hobesten direlako baizik.

Haur txikiak.

Hiru urtetik beherako umeentzat ere jostailu asko daude salgai dendetan, baina musika eta argia dutenak saltzen dira gehien. Haur txikienak bizkortzeko xedea izaten dute, eta, horretarako, kolore, forma zein ukimen ezberdinetakoak izaten dira.

Jostailurik salduenak.

Hiru Bikiak telesaioko panpinak, Bibi Txirikorda Magikoak, Teletubbie marrazki bizidunetako panpinak, Furby panpina hizlariak, Spiderderman eta Pokemon bideo-joko nahiz panpinak dira Gabonetako erregeak. Gehienak agortuta daude, edo ale gutxi gelditzen dira dendetan. Game Boy kontsolek eta Play Station kontsolarako jokoek ere oso harrera ona izan dute.

Ohiko jostailuak.

Eskaintza etengabe berritu arren, gura- so anitzek ohiko panpina (Barbie...) joko (Playmobil, Legoko piezak...), auto eta gainerakoak hobesten dituzte. Batzuek bitarikoak erosten dituzte, berriak eta betikoak; beste batzuek berriak soilik; eta gainontzekoek ohikoari eusten diote. Merkeagoak izaten dira, bertsio berriak salbu.

III. ERANSKINA

(2. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 02.26.43)

Olentzerori aholkuak

- Irratia Eta besteak beste Arantxa Sanchez aurkitu dut Olentzerori eta Errege Magoei aholkuak ematen lan egiten du berak Eroskin
- Aurkezlea Arantxa, arratsalde on
- Arantxa Arratsalde on
- Aurkezlea Olentzaro eta Erregeak hasi al dira jostailuak erosten?
- Arantxa Ba, hasi dira pixkanaka-pixkanaka etorri direla Eroskira, jostailuak ikustera eta aukeratzera
- Aurkezlea Beraz, azkeneko momenturarte ez dute itxoiten
- Arantxa Normalean, denboraz, denboraz hasten dira, etortzen dira, galdetzen dute ze jostailu-mota dauden, adinaren arabera, haurraren gustuaren arabera, eta normalean denboraz hasten dira erosten jostailuak.
- Aurkezlea Arantxa, egia al da galdu xamar dabiltzala edo gure inpresioa bakarrik da?
- Arantxa Bueno, egia esan, denetarik dago, denetarik dago Batzutan etortzen dira eta galdetzen zehazki jostailu batengatik, baina, batzutan, ez dakit oso ondo ikusten dutena telebista. Ez dago oso garbi bere semea edo alabarentzat egokia izango den, orduan bai galdetzen dute, idatzi diola..., begira ez dakit zenbat urte dituen..., ba zazpi ditu..., egokia izango da.... baina kontutan, nire ustez inportanteena da jostailu bat aukeratzekoan etortzen denean bai Olentzaro edo bai Errege Magoak, haurraren adina jakitea, gustuak, edo interesak eta beharrak
- Aurkezlea Baina askotan ez da erraza izaten jakitea haurren gustuak eta beharrak zeintzuk diren, e?
- Arantxa Hori da, hori da, hori batzutan nahasten da piska bat, nahasten da eta batzutan ez dakite bere interesa edo gustua edo beharra den, ez? Ba, gutxi gorabehera jakin behar da etxean zer daukaten. Ume batek baldin badauka futbolinak adibidez bakarrik, beste jostailu-mota erostea, beste jostailu-motak eta inportanteena da barietatea izatea, jostailu denetarik, mota guztietakoak eta gero berak aukeratuko du beraien gustukoak direnak
- Aurkezlea Zein gustatzen zaie gehien. Play Station, Game,boy, Pokemon-ak eta Digimon-ak, aipatu ditu Garbiñek, horrelako asko, eskatu ahal dituzte aurtzen?
- Arantxa Ba, egia esan bai, eskatzen dituzten, orain, ia.... duela urte batzuk ia modan jarri da, ez? Eta asko gustatzen zaizkie jostailu-mota horiek, ez?. Play Station eta zuk aipatu dituzunak.
- Aurkezlea Eta Olentzaro eta Errege Magoek ba al dakite nola funtzionatzen duten traste horiek?
- Arantxa Bueno, ba, horretarako, horretarako aproposa dago Eroskik antolatzen duen aholkularitza, zeren etor daitezke eta probatu, ikusi eta baita ere haurrak ere ikus dezakete jostailuak han bertan, bai Play Station-ak, edo beste joku-motak, ba, gero idazteko eskutitza eta esateko, ba, begira, ikusi dut jostailua eta probatu dut eta gustatu zait.
- Aurkezlea Asko gustatu zait,

- Arantza Hori da,
- Aurkezlea Eta esan dugu modan-modan dagoela Play Station-ak eta horiek denak, baina betiko jolasak, panpinak eta partxisak eta horiek, modaz pasatan daude?
- Arantxa Nik usten dut ez direla modaz pasatu, agian boom bat edo da Play Station eta joko horiekin, baina panpinak, kotxeak, partxisak eta horiek ez dira modaz pasatu, agian, partxisak eta horrelako betiko jolasak edo ez dira lehengo diseinua; agian, berritu dituzte diseinuak, baina joko bera jarraitzen du izaten du partxisa.
- Aurkezlea Errege Magoek eta Olentzarok oso kuriosok al dira? Galdera asko egiten al dituzte?
- Arantxa Beno denetarik, denetarik, batzutan bai galdetzen dute ze nola funtzionatzen duen jostailu batek edo, adibidez, ba, etortzen dira galdezka ordenagailu batengatik ez, eta ea aproposa den edo egokia den, zazpi urteko haur batentzat, ez? Orduan bai, horretan bai, batzuetan, pixka bat galduta dabilta, ez? Ez dakitela aproposa den, edo gehiegi den edo gutxi den, horretan bai galtzen direla piska bat.
- Aurkezlea Bai, erotu egingo ditugu, e?
- Arantxa Hor gaude, ba, laguntzeko ahal dugun guztia, e?
- Aurkezlea Beste kuriositate bat, neskei panpinak eta mutilei kotxeak edo baloiak oparitzen dizkiete oraindik edo hori aldatzen ari da?
- Arantxa Ba nik usten dut, ba denborarekin aldatzen ari dela, ia aurten ez da lehenengo aldia aholkularitza egiten dela, orduan pixkanaka-pixkanaka, eta nik usten dut, bai eskoletan eta bai gizarte osoan pixka bat hori zaintzen ari dela eta aldatzen ari dela, ez? Gure ustez jostailuak ez du sexurik, ez da ez neska ez mutila, eta haurrak txikitatik hasten da jolasten eta berak ez du bereizten eta berdin zaio jolastea panpina batekin edo baloi batekin, nahiz eta mutila edo neska izan, ez? Orduan, gero, guk bai, helduok, jartzen ditugula etiketak, eta esaten dugu: hau da neskentzat eta hau mutilentzat. Baina haurrak jolasten du gustatzen zaionarekin.
- Aurkezlea Bai, baina haurrak maltzur samarrak dira eta batzuetan barre egiten...
- Arantxa Hori batzutan gertatzen da edo batzutan helduok ere gure beldurrengatik edo ez jakintasunagatik esaten dugu neska bati ez diogu kotxe bat oparituko edo mutil bati panpina bat, ez? Baina haurrak berak bere izaera edo garatzeko jolastu behar du guztiarekin, ez? Eta ikasi behar du guztiarekin.

IV. ERANSKINA

(2. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 02:32:36)

Jostailuek ez dute sexurik

- Irratia Arantxa Arrizabalaga, esate baterako, Donostiako udaleko emakumearen bulegoan egiten du lan berak, eta berak ere badauka zer esana jostailu kontu honetan.
- Aurkezlea Arantxa Arrizabalaga, Donostiako udaletxeko emakumeen bulegoko teknikaria, arratsalde on!
- Arantxa Arratsalde on!
- Aurkezlea Arantxa, zergatik da garrantzitsua jostailuak ondo aukeratzea?
- Arantxa Bueno, ba, jostailua ez da bakarrik ariketa ludiko bat, pentsatzen dugu, askotan haurrak jolasten ari dira, gauza entretenigarria bakarrik dela. Ez Jokoaren bidez ere giza arauak ikasteko modu bat da jokoak, beste gauzez aparte; jokoaren bidez ere mundua ezagutzen da, nor bere burua, beste lagunena, lagunak ezagutzen dituzu, sormena ere garatzen du, arazoak ere pixka bat nola konpondu, arazoetatik nola atera eta... hori da joko sinbolikoan, hori dena garatzen da, guretzat pixka bat garai honetan azpimarratzen ari garena da sexismoari buruz jostailuaren aukeraketan, hori dela, ez? Giza arauak ikasteko modua dela, gizarteak nola funtzionatzen duen. Orduan, oso garbi ikusten da oso txikitatik haurrei eskaintzen badizkiogu, oso jostailu sextak edo beren etorkizunerako rolak eta ikasiko dituztela oso azkar, ez?
- Aurkezlea Arantxa neska eta mutilentzat oraindik ere jostailu desberdinak erosten direla iruditzen al zaizue?
- Arantxa Orokorrean bai, eta jende askok esango du ezetz, baina nik uste dut estereotipo hori oso barneratua daukagula eta oso saila dela gaineratik kentzera, ez? Gainera, presio soziala, komunikabideen presioa izugarria da; orduan, bai familia bai eskolak eta egiten dituzten ahaleginak txikiak dira, baina egin behar dira, ez? Oso inportantea da familian gauza hori aztertzea, telebista hurrekin ikustea... ikustea anuntzioak, beraien programak eta pixka bat hitz egitea beraiekin, hor agertzen diren irudiak, zeren eta gehienetan faltsuak dira...
- Aurkezlea Arantxa, hala ere, batzutan, begietatik sartzen zaizkie jostailuak. Ez da oso erreza umea, haurra, konbentzitzea
- Arantxa Bai, hori egia da, hori egia da, presioa izugarria da eta, gainera, kontuan hartu, agian, neskak eskatzen badu gizonetakoaren suposatzen den zerbait, ba, bueno, hori sozialki baloratuta dagoenez, ez da hain gaizki ikusten, baina mutiko batek eskatzen badu panpina bat edo.... Atzo esaten zidan batek plantxa arrosa bat eskatu zuela behin batek, ba, bueno, farre egiten diote lagunak, eta oso gaizki sentitzen dira mutikoak.
- Aurkezlea Umetan ibilitako jostailuek geroko gure jarrerarekin lotura zuzena du zuentzat. Beraz, ze gomendio emango zenieke gabonetako jostailuak erosi behar dituztenei, Arantxa?
- Arantxa Esan behar da, ez dela bakarrik jostailu kontua, e?, jokoarena oso garrantzitsua, hasieran esan dugun bezala.
- Aurkezlea Ez da bakarra, noski!

- Arantxa Ez da bakarra. Zeren etxean ikusten duten etxe barruko antolaketa, gurasoak ere nola, neska eta mutilei zer jarrera desberdina daukaten, ez? Inkontzienteki transmititzen dugu, ez? Txiki txikitatik jaio berritik koloreak ere desberdintzen ditugu urdinak eta arrosak, emozioak ere desberdinak tratatzen dira neska eta mutilengan; adibidez, negar egitea edo, hor modu asko... Ez da bakarrik jolasa. Garai honetan jende guztia opariak erosten ari garela eta guk esan beharko genuke kritikoak izan behar dugula gai honetan, eta, noski, ez murriztu haurren garapenerako behar diren baloreak eta, zeren balore horiek denonak dira, neskenak eta mutilenak, gizonenak eta emakumeenak, eta ezin dugu batzuek beti neskengan garatu eta besteak mutilengan, pertsona bakoitzaren ahalmenak eta garatu behar dira. Orduan, hori jostailuen erosketetan ere ikusi behar da ere.
- Aurkezlea Beraz, gomendio orokorra izango litzake, iragarkia beraiekin ikusi, nolabait ere azaldu, eta mutil batek, lehen esan duzuna, plantxa arrosa bat eskatzen badu, ba zergatik ez?
- Arantxa Zergatikan ez? Hori da.
- Aurkezlea Arantxa Arrizabalaga, Donostiako Udaletxeko emakumeen bulegoko teknikaria

V. ERANSKINA

Ez da jolasa

Jostailu egokia erostea ez da jolasa. Jostailuek haurraren garapen egokia bideratzen lagun dezakete. Edo trabatu.

Jostailua erosteko orduan, gutxienez, ondoko bi ezaugarriok kontuan hartu behar dira: haurraren adina eta hazkuntzako ezaugarriak. Erosketa egokia egiteko aholkuak eta ardatzak eman dizkio EGUNKARI Ari Ana Sanzek, Psikotek zentroko psikologoak eta Oñatiko Aozaraza ikastolako orientatzaileak:

Urte bat bitartera. Jostailuak forma sinplea izan behar du, kolore bizia eta, ahal bada, soinua. Bestalde, umeek eskuratzen duten guztia ahora eramaten dute, eta, horregatik, jostailuak plastikozkoak edo egurrezkoak izatea komeni : zintzilikariak, txintxirrinak, oihalezko pilotak eta uretako jostailuak.

- ❑ **1etik 2 urtera.** Tarte horretan oreka eta logika lantzen dute, eta motrizitatea. Egokiak dira, esaterako, oihal eta gomazko panpinak, arrastan eramateko jostailuak, bete eta husteko ontziak, eraikuntzak, lau gurpileko bizikletak. Eskulanetarako, berriz, egokiak dira kuboak, palak eta plastilina, esaterako. Hizkuntza ere hasten dira jorratzen: arbelak, atzamarrekin margotzeko margoak eta ipuin marrazkidunak.
- ❑ **2tik 3 urtera.** Motrizitatea garatzen jarraitzen du: trizikloak, eraikuntzak, puzzleak, plastilina eta abar. Gero joko sinbolikoekin eta antzezteko jolasekin hasten dira: telefonoak, panpinak eta etxeak dira egokiak.
- ❑ **3tik 4 urtera.** Joko sinbolikoa eta antzezpenera garatzen jarraitzen dute. Horregatik, mozorroak eta antzezpenerako edozein jolasek balio du.
- ❑ **5etik 6 urtera.** Zirkuituak egiteko jostailuak, bolak zuloetan sartzeko jolasak, egurrezko dominoa, pilotak, ping-ponga, kometak eta adinera egokitutako ipuinak.
- ❑ **7tik 8 urtera.** Umea sozializatzen hasten da, eta beste lagun batzuekin harremanetan jartzen da jolasteko orduan. Mahai-jokoak gustuko dituzte adin horretan. Bestalde, logika eta motrizitatea garatzeko jolasak ere egokiak dira.
- ❑ **8tik 9 urtera.** Sormena eta motrizitatea lantzeko plantillak eta moldeak asko erabiltzen dira. Logika eta hizkuntzaren arloan aurrera egiten dute nabarmen, eta giza gorputzari lotutako jolasak dituzte gustuko: anatomi eta zientzi jolasak. Elkarlana nabarmendu egingo da umeen artean, eta arauak errespetatzen hasiko dira.

Beti ere, zailtasun-mailak kontuan hartzea komeni da. Bestalde, "jolasek haurraren sormena landu behar dute. Horregatik, hasiera batean, jostailu konplikatuak ez erosteko aholkua ematen dugu, haurrak ikusle huts bilaka ez daitezen. Gainera, oso garestiak dira", azaldu du Ana Sanzek. Halaber, indarkeria eta sexu-ezberdintasuna bultzatzen dituzten jostailuak alde batera uzteko aholkatzen du.

VI. ERANSKINA

(3. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 02.36.52)

Zaudete geldi pixka batean (I)

Babelgo liburutegia. Gaur "Zaude geldi pixka batean". Andoni Egaña. Elkarlanean.

Nik, Kepak, ez nuen ezaugarri berezirik umetan. Urtebetetze-eguna urrian izaten nuen, eta, noski, oraindik ere hala dut. Amak beti kontatzen zidan, bost urte nituela, behin eta berriz galdegiten niola nire urtebetetze-egunari buruz:

- Ama... noiz da nire urtebetetze-eguna?
- Puf! Oraindik asko falta da, urriaren 17an, maitea.
- Urriaren 17an? — esaten omen nion irribarre lelotuaz.
- Bai, urriaren 17an —erantzuten omen zidan amak azkenerako petraldurik.
- Joan zen urtean bezala! —esan omen nion nik behin, kasualitateak miretsita, memoria burua baino hobe nuela erakutsiz.

Beraz, kokoloa gehiago nintzela aitortu beharko dut, argia baino. Eta amak ez ezik, ikastolako lagunek ere antzeman egin zidaten etxera CINEXIN ikustera gonbidatu nituen egun malapartatu hartatik aurrera.

Jarraitu aurretik zor dut izen horren gaineko argibide zenbait. Garai hartan, gaur baino urriagoak ziren zenbait gauza. Eta bakarraren izenez ezagutzen genituen ziren guztiak, guretzat, izan, bakarra zelako. Horrela, kakaoari, kakaoa deitu beharrean, COLA CAO deitzen genion, hura baitzen ezagutzen genuen kakao bakarra. Eta kontu bera gertatzen zitzaigun zine-kamerarekin: EXIN etxekoek atera zuten zine-proiektore bat, hutsa, plastikozkoa, baina orduan gu denon ametsetako opari bihurtu zena.

VII. ERANSKINA

(ariketa: hutsuneak bete)

Zaudete geldi pixka batean (II)

(Eseri)_____ nire gelakiderik maiteenak nire logelan pilatuak, aukietan batzuk, lurtean beste batzuk, eta ohearen gainean gainerakoak, paretan jarria (ukan)_____ izara zuriari begira. (Itzali) _____argiak eta (ipini) _____ martxan nire CINEXIN ospetsua. Ustez. Ordu arteko probetan dena ongi (irten) _____, egun hartan ez (ukan) _____ irudi bakar bat botatzeko gaitasunik izan. Kexuka (hasi) _____ hasieran lagunak. Txistuka gero. Eta nire ahaleginak alferrikako (izan) _____(e)la (antzeman) _____ -ean, argia pizteko agindu eta kalera (joan) _____(e)la, jolasera, (egin) _____ mehatxu.

(Saiatu) _____ CINEXINEkin izandako porrota goxatzen. Argi-linterna bat egoki kokatuz, maindire zurian txakur, zaldi, untxi, uso... itzalak egiten (jakin) _____, eskuen mugimenduen bidez. (Egin) _____, nire ustez, ongi. Baina hura ume-mokoen kontua (izan) _____(e)la eta haiek ba(joan) _____(e)la handik (erantzun) _____. Ez (ukan) _____(e)la zozokerietan denborarik galdu nahi.

Bakarrik (geratu) _____ nire saminarekin, nire ezinarekin. Mesfidantza (hartu) _____ mugimenduari eta irudiei. Eta nire adiskideek niri (hartu) _____ mesfidantza. Apenas gurera gehiago (etorri nahi izan) _____. Gure etxean aspertu egiten omen (izan) _____. Eta ordutik aurrera "CINE-EZIN" goitzen mingarriaz (goxatu) _____ belarriak urte luzeetan.

VIII. ERANSKINA

(4. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 02.38.59)

Zaudete geldi pixka batean (III)

Eseri ziren nire gelakiderik maiteenak nire logelan pilatuak, aulkietan batzuk, lurrean beste batzuk, eta ohearen gainean gainerakoak, paretan jarria nuen izara zuriari begira. Itzali nituen argiak eta ipini nuen martxan nire CINEXIN ospetsua. Ustez. Ordu arteko probetan dena ongi irteten bazitzaidan, egun hartan ez nuen irudi bakar bat botatzeko gaitasunik izan. Kexuka hasi ziren hasieran lagunak. Txistuka gero. Eta nire ahaleginak alferrikako izango zirela antzeman zutenean, argia pizteko agindu eta kalera zihoazela, jolasera, egin zidaten mehatxu.

Saiatu nintzen CINEXINEkin izandako porrota goxatzen. Argi-linterna bat egoki kokatuz, maindire zurian txakur, zaldi, untxi, uso... itzalak egiten nekien, eskuen mugimenduen bidez. Egin nizkien, nire ustez, ongi. Baina hura ume-mokoen kontua zela eta haiek bazihoazela handik erantzun zidaten. Ez zutela zozokerietan denborarik galdu nahi.

Bakarrik geratu nintzen nire saminarekin, nire ezinarekin. Mesfidantza hartu nien mugimenduari eta irudiei. Eta nire adiskideek niri hartu zidaten mesfidantza. Apenas gurera gehiago etorri nahi izan zuten. Gure etxean aspertu egiten omen ziren. Eta ordutik aurrera "CINE-EZIN" goitizen mingarriaz goxatu zizkidaten belarriak urte luzeetan.

IX. ERANSKINA

(5. bideo-pasarte. ETB: 02.40.37)

Corina, Corina

- Neskatxa 1.** Mooli!
- Neskatxa 1.** Andre honek festa asko ematea espero dut, a zer nolako hondarrak!
- Persi.** Aajjjj, krema daukate, higuina diot kremazkoei.
- Neskatxa 2** Eman niri Persi, nik atsegin ditut kremazkoak, mila esker.
- Persi** Honek kokoa dauka, higuina diot kokoari.
- Neskatxa 2** Emadazu niri Persi, nik atsegin dut kokoa.
- Neskatxa 3** Zuk dena duzu atsegin, neska!

X. ERANSKINA

Marieren urtebetetzea

Gaur, Marieren urtebetetze-eguna, askaltzera gonbidatua nengoen. Marie neska da, baina neska aparta; ile horia du, begiak urdinak, dena arroxak kolorekoa da, eta gure bizilagun diren Courteplaque jaun-andreen alaba da. Courteplaque jauna Petit Epargnant almazenetako zapata-saileko jefea da, eta Courteplaque andreak pianoa jotzen du eta garrasiz betetako abesti bat kantatzen du beti; gure etxetik dena entzuten da gauero.

Amatxok erregali bat erosi du Marierentzat: lapiko eta horrelako trastez osaturiko sukaldeko tresneria bat, eta nik ezin dut ulertu nola diberti daitekeen horrelako jostailuekin. Gero amatxok traje urdin-urdina jantzi dit gorbata eta guzti, brillantina pila batekin orraztu nau, txintxoia izan behar dudala esan dit, benetako gizontxo bat, eta gurearen ondoan dagoen Marieren etxeraino lagundu dit. Ni oso pozik nengoen, urtebetetze-jaiak oso gogoko ditudalako eta Marie maite dudalako. Noski, Alzeste, Geoffroy, Rufus, Clotaire, Joakin edo Maixent bezalako lagunak ez dira izaten urtebetetze-jai guztietan, baina, hala ere, beti dibertitzen da bat; pastelak jan, cow-boyetan, polizia eta lapurretan jolastu... ongi pasatzen da beti ere.

Marieren amatxok ireki digu atea, etxeko egongelan sartu naiz, eta, gero, amatxo joan egin da, berriro txintxo ibiltzeko esanez. Ni han bazterrean zegoen besaulki batean eseri naiz, Mariek han zeuden bi neskei nire erregalia erakusten zien bitartean; eta Melaniek berak halako bat badaukala esan du, baina hobea; baina Eudoxiek Melanieren sukaldea berari bere urtebetetzean oparitu ziotena baina hobea ez dela izango esan du. Eta hirurak eztabaidan hasi dira.

Eta gero atea jo dute, behin eta berriro, eta neska pila bat sartu da, denak soineko apainekin, erregalo txoroekin, eta bat edo beste beren panpinekin etorri dira. Jakin izan banu, baloia eramango nuen.

Mutiko bakarra neu nintzela ohartu naizenean, etxera itzultzeko gogoa izan dut, baina ez naiz ausartu, eta aurpegia bero-beroa nuen jangelara sartu garenean. Courteplaque andreak paperezko kapelak jarri dizkigu buruan; nirea punta-zorrotza zen, pailazoena, eta gomatxo bat zeukan lotzeko. Neskatila haiek barre egin didate hala ikustean, eta orduan eta bero gehiago sentitu dut aurpegian.

Askaria ona izan da. Pastak, txokolatea eta tarta bat bere kandela eta guzti, eta Mariek putz egin du eta denek txalo jo dute. Nik, harrigarria, ez neukan batere goserik, baina neskatila haiek asko jaten zuten.

Gero, Mariek txoriei buruzko zerbait abestu du saloiaren erdi-erdian. Bukatu duenean denek txalo jo dugu, eta Courteplaque andreak beste norbaitek abestu, dantzatu edo olerkiren bat errezitatu nahi al duen galdegin digu. Nik ezetz esan diot buruaz, eta neskatila haiek barre egin dute. Orduan Bertille pianoa jotzen hasi da mingaina atereaz, baina bukaera ahaztu egin zaio eta negarrez hasi da.

Orduan, Courteplaque andreak besotik heldu dit eta Bertilleri eta Marieri eskua eman behar izan diet, eta denok korroan jarri gara, eta Courteplaque andreak pianoa jotzen zuen bitartean, gu bueltak ematen hasi gara. Nire ikaskideek ikusi izan banindute, eskolaz aldatu beharko nukeela ere pentsatu dut.

Eta gero atea jo dute, amatxo zen nire bila; hura poza, amatxo ikusi dudanean!

— Nikolas aingerutxo bat da —esan dio Courteplaque andreak amatxori—, inoiz ez dut hain ume txintxorik ikusi.

Amatxok harritu itxuraz baina oso pozik entzun du. Etxean, aitatxo iritsi denean, begiratu dit eta amatxori zer dudan galdegin dio:

— Nikolasekin oso pozik nago! —esan dio amatxok—. Aldameneko neskatilaren urtebetetze-jaietan izan da, eta Courteplaque andreak denen artean edukatuena dela esan dit.

Aitatxok kokotsa igurtzi du, kapela punta-zorrotza kendu dit, eskua nire ile artean pasa, brillantina bere mukizapiaz lehortu eta ongi pasa dudana galdetu dit. Orduan negarrez hasi naiz.
Aitatxok barre egin du, eta gero zinemara eraman nau bakeroz betetako pelikula bat ikustera

XI. ERANSKINA

(9. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 02.47.42)

Gazte kontsumitzaileak

Irratia Beste arlo garrantzitsu bat kontsumoa genuke, nola hezitzen ari dira gaurko gazteak beren kontsumo ohituretan?

Jexux M Negargarri, eta hori beraiek ere badakite, beraiek aitortzen dizute. Nik 17tik 21 urte artekoetan lan egiten dut, beraiek badakite, kontsumitzaile handiegiak direla eta gehiegi kontsumitzen dutela, jeneralean; zergatik hor ere badaude bestelakoak, baina, jeneralean, gehiegi kontsumitzen dutela eta niri horrek asko kezkatzen nau, asko... Gu tranpa egiten ari gara gaur egungo gaztetxoei, bizi-maila handian jaio dira, hori ez da inoren errua, hor beti gora igo eta bizi-maila bat lortu duenak, bizi-maila egoki samar baten bizitzeko eskubide osoa du, lan egin eta horretatik bizi delako, ez? Seme-alabek hor jaio dira. Hor jaiotzeak eman dizkie abantaila ugari, baina, gero, ez itzazu kontsumista egin, ez iezu nahi duten guztia eman, ez iezaiezu ohitu kapritxo guztiak edukitzera, ze, gero, lanera joaten denean diru gutxi emango diote, ez diote inongo segurantziarik eskainiko, eta gero, gainera, hain dago bizitzan belar motxera gutxi ohituta, belar motxa zapaltzeko bakarrik dela pentsatzen du. Ez zaio okurritu ere egiten belar motxa izan daitekeela momentu batean goxoena, eta, batez ere, besterik ez dagoenean, guztia beharrezkoa duela, zapaldu egiten du eta esaten du: ez daukat ezer. Nik horretan usten dut oso-oso gaizki jokutzen ari garela, eta nik ez dakit mundu mailako konturik, baina gure Euskal Herrian, oso-oso gaizki, gure gaztetxoak kontsumitzen dute kantitatea, jeneralean.

Irratia Eta hortik datoz ondoren inimizazio prozesuak, askotan alkoholak, drogak eta...

Jexux M Honbre, klaro! Guk hor ere milagroak nahi ditugu. Guk nahi ditugu haur kontsumitzaileak, baina gero guri komeni..., guri beldurgarri iruditzen zaigun hori kontsumituko ez dutenak, hori ezinezkoa da. Zuk haur bat neofilikoa egiten baduzu, hau da, beti irrika duen guztia kontsumitzera ohitu dena, zera... --*orain zainera joan nahi nuke*-- aiba 750 pta., eta gero pipak erosteko, eta gero nahi duzun guztia, --*hau nahi nuke, eta beste hori*--, nahi duen guztia ematen badiozu, --*erropa hau nahi nuke, eta marka honetakoa*--, eta eman, eman eta eman, egunen batean, zu ez zaudenean, norbaitek droga eskaintzen badio, hura probatzeko gogoia; han zergatik esan behar dio bere buruari ezetz? Sekula ohitua ez baldin bada bizitzan ezetz esaten bere gogoei. Horretan, nik uste dut, gurasoak ez genukeela gehiegi kezkatu behar, bakarrik kezkatu behar guri, guri ez eta berez ere, negargarrien diren kontsumo horietan eroriko al dira? Baizik nik haur kontsumitzaile bat al daukat?

Eta berak... Nik lan baten irakurri dut aste honetan, lehengo astean, batek jartzen zidan nik gelan daukat: gelan eh, gelan daukat: ordenagailua, gero bideoa eta haren gainean telebista, beste aldeko mahaian daukat nire gelan eh? Beste mahian daukat telefonoa erabiltzen ez dudana, mobilen bat erabiliko du edo inalanbrikoa... gero daukat belarritako Walk-mana eta gero daukat oraingo kompak diskekin ere beste zera bat. Nik badakit hau dena gehiegi dela, baina bateko amonak bideoa utzi zuela, besteko honek erregalatu zidala, nik gela horrelaxe daukat. Klaro, bizi-maila hori... gero interneta dauka, noski, eta nik usten dut hor guk maitasuna, maitasuna, ez dakit gauzak ematearekin nahastu egin ez dugun batzuk.